



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 18a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuari bost hilabeteko epean igor diezaion arrazismoari eta xenofobiari buruzko foru lege berria. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, Erizaintzako oposizio-lehiaketako 2022ko otsailaren 6ko azterketan egindako item/galderen kalitate psikometrikoa egiaztatzeko. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari helaraz diezaion, haren gaineko iritzia emateko. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (7. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako “Los Sauces” ikastetxe publikoko espazioak CNAI-Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneari lagatzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaurgarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainekoa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (9. or.).

- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako hezitzaileak kontratatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaile berriaren helburu eta proiektuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kronikoen Planari eta Gizatiartzeko Planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, seigarren olatua kontrolatze aldera musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroan COVID-19aren pasaportearen erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, ospitalez kanpoko larrialdien eta 112aren berrantolaketari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Amiantoari buruzko Planeko Departamentuarteko Batzordeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gutxiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gehiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, COVID txertoaz gogorarazteko eta horretarako hitzordua eskaintzeko telefono-deiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, jaioberrien baheketa areagoturako programari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Iruñeko gizarte-zerbitzuetako zentroaren balizko finantzaketa aztertze eratu den lantaldeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Osasungintzako langileei menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak atzemateko prestakuntzari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (22. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko. Izendapen proposamena (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuari bost hilabeteko epean igor diezaion arrazismoari eta xenofobiari buruzko foru lege berria.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Parlamentuari bost hilabeteko epean igor diezaion arrazismoari eta xenofobiari buruzko foru lege berria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrazismoari eta xenofobiari buruzko foru lege berria aurkez dezan.

Arrazismoak gizartea kaltetu egiten du, eta pertsonak diskriminatu, haien ongizatea, bizi-aukerak eta giza duintasuna kaltetuz. Pertsona orok izan behar du bere eskubide eta askatasun funtsezkoak baliatzeko aukera, edozein dela ere bere arraza edo etnia. Nafarroak aurrera egiten du denon xedea den gizarte ireki eta inklusibora

iristeko eta eremu horretan ez dago lekurik arrazismorako, gizarte eta herritar gisa ahultzen gaituelako. Historian zehar arrazismoa izan den errealitateak eraman behar gaitu kontzientzia hartzera eta neurri zehatzak ezartzera gaitz horrek sortzen dituen estereotipoen aurka egiteko.

Hori dela-eta, behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Parlamentuari bost hilabeteko epean igor diezaion arrazismoari eta xenofobiari buruzko foru lege berria, Nafarroan arrazismoaren eta xenofobiaren biktimendako arreta arautuz eta lege-testu bakarrean bilduz arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako neurri guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arrazismoari eta xenofobiari buruzko arau-esparru berrian arautu ditzan gatazka-ebazpenerako mekanismoak, Nafarroak justizia errestauratiboa ezartzearen alde egiten duen apustuarekin bat, arreta jarritz gatazka prebenitu eta konpontzeari, justizia errestauratiboko tresnekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, informazio kanpaina bat bultzatuz dezan herritarrek ekintza xenofobo eta arrazista horiek erakunde eskudunen aurrean salatu ahal izatea errazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, lankidetzako ekintzak garatu ditzan toki entitateekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokan.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuizatzen dituela arrazismoa eta xenofobia sustatzen duten diskurtsoak.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Virginia Magdaleno Alegría eta Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira azterlan bat egin dezaten, Erizaintzako oposizio-lehiaketako 2022ko otsailaren 6ko azterketan egindako item/galderen kalitate psikometrikoa egiaztatzeko.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira azterlan bat egin dezaten, Erizaintzako oposizio-lehiaketako 2022ko otsailaren 6ko azterketan egindako item/galderen kalitate psikometrikoa egiaztatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasuneko kontseilariaren irailaren 10eko 195E/2021 Foru Aginduaren bidez deialdi bat onetsi zen, batetik, Osasun Departamentuaren erakunde autonomoetarako erizainen 424 lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta bestetik, hautaprobeen bitartez, izangaien zerrendak osatzeko, horrelako lanpostuetan jardun

dezaten, bai aldi baterako kontratazio bidez, bai aldi baterako barne igoeraren bidez.

Azterketa 2022ko otsailaren 6an egin zen, COVID-19aren olatu gogorrenetako baten bitartean. Nafarroako erizaintzako oposizio-lehiaketarako deialdiko 4.713 izangaietatik bakarrik 649k gauditute proba, bertan 30 puntu edo gehiago lortzeagatik, Osasun Departamentuak emandako datuen arabera. Gauditute dutenen kopuru urriak erakusten du azterketa korapilatsua izan dela.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu azterlan bat egin dezaten, Erizaintzako oposizio-lehiaketako 2022ko otsailaren 6ko azterketan egindako item/galderen kalitate psikometrikoa egiaztatzeko. Azterlanean zehaztuko da galderen zailtasun- eta eskakizun-gradua, Itemari erantzuteko teoriaren bidez (Itela diskriminatzea-Zailtasuna-Ausaz asmatzea) eta/edo Testen teoria klasikoaren bidez (Zailtasuna-Diskriminazioa-Distrakizailak diskriminatzea- Lerrabidearen balorazioa).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, oposizio eta oposizio-lehiaketa guztietan zehaztua egon dadin azterketan zailtasun gradua, Testen teoria klasikoaren edo/eta Itemari erantzuteko teoriaren bidez, erabili aurretik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu, langileen ordezkariekin negoziatzen dezan Foru Komunitateko administrazioaren eta haren era-

kunde autonomoen sarbide-probak aldatzea eta eguneratzea. Sarbidean oroimen probak eraldatu edo osatu eginen dira lanpostuan garatu beharreko gaitasun, eginkizun eta trebeziekin lotutako beste irizpide batzuekin.

Iruñean, 2022ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko.

Zioen azalpena

Nekazaritzako elikagaien sektorean hilabeteak daramatzagu ohartarazten Nekazaritza Politika Erkidea zaharkituta gelditu dela, inpaktuak neurtzeko eskaera egiten, Europar Batasunaren elikagai-subiranotasunaren agertoki errealari erantzunen dion politika berri bat diseinatze aldera, eta baserriak mahaira estrategia salatzen, hor aipatuta, besteak beste, nazioartean ospea duten erakundeek egindako lau azterlan, non ohartarazten baita elikagai-segurtasunaren aurkako mehatxuek, elikagaien prezioaren igoera neurrigabeaz eta Europako ekoizpenaren jaitsieraz. Denek asmatu zuten, salbu eta Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko kontseilariaren hitzetan Nekazaritza Politika Erkide horrekin “erabat lerratuta” sentitzen baitzen. Izan ere, Europar Batasuneko Nekazaritzako Komisario Janusz Wojciechowskik modu agerian aitortzen du berrikusi egin behar dela Nekazaritza Politika Erkide berriko baserriak mahaira estrategia, arriskuan jar dezakeelako elikagai-segurtasuna. Beste alde batetik, Nekazaritako ministro Luis Planak orain dienez “erabakiak birplanteatu eta lehentasunak aldatu behar dira (alegia, Nekazaritza Politika Erkide berriak berrikusi), elikagai-segurtasuna bermatzeko”.

Errusiak Ukraina inbaditu izanak gertakizunak azkartu besterik ez du egin. Epe ertainerako ohartarazten ziren inpaktuak hogeie egunen buruan iritsi dira eta, tamalez, konponbideak baino askoz abiadura handiagoan datoz.

Nekazaritzako intsumoen prezioak ziztu bizian igotzen ari dira. 2022ko martxoaren 9an, mozio

hau aurkeztu den egunean, B gasolio litroa 1,20 eurotan dago, megawatt elektrikoa 545 eurotan, gari tona 440,75 eurotan, arto tona 368,75 eurotan eta koltza tona 846,25 eurotan, Parisko Burtsaren datuen arabera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, ebaluatze aldera Nekazaritza Politika Erkiderako egon daitezkeen aldaketa eta alternatibak, ahalbidetuko dutenak nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena ahalik eta gehien areagotzea ingurumenari kal-

terik sortu gabe, ekoizpen ahalmena mugatzen duten Nekazaritza Politika Erkidearen neurriak malgutu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, ebaluatze aldera intsumoen igoera eta zuzeneko laguntzak zein maila fiskalekoak ezartzeko, lehengaien igoeraren eragina arinduko dutenak, horrela bermatuz nekazaritza eta abeltzaintzako enpresarik ez dela itxiko haien mantentzeko ezintasunagatik eta elikagaien ekoizpenaren ahalmen goren lortzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari helaraz diezaion, haren gaineko iritzia emateko.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2022ko martxoaren 15ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari helaraz diezaion, haren gaineko iritzia emateko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuari igor diezaion Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana, Legebiltzarrak bere jarrera azaltzeko eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatuari jarraikiz".

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2022ko martxoaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren XIII. tituluaren II. kapituluan xedatuari jarraikiz izapidetua izan dadin”.

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa.*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateari 6,9 milioi euro eman zizkion etxebizitza sozialak eraikitzeko, prezio mugatuko alokairuzko etxebizitza publikoen parkearen guztxiegitasunari aurre egiteko xedez.

Zure departamentuak nola antolatuko ditu etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako “Los Sauces” ikastetxe publikoko espazioak CNAI-Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneari lagatzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako “Los Sauces” ikastetxe publiko espazioak CNAI-Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneari lagatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer baldintza ezarri dituzte Hezkuntza Departamentuak eta Barañaingo Udalak Los Sauces HLHIPko espazioak Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroari lagatzeko eta une honetan noraino betetzen dira?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaurgarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainekoa.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko galdera, toki-entitateetan klima-aldaketarekiko zaurgarritasunari buruzko diagnostikoak egitearen gainekoa. Galdera

2022ko martxoaren 8ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/POR-00104).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1- Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora, Nafarroan.

2- Oinarrizko Osasun Laguntzako erizaintzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora, osasun eskualde oinarrizko bakoitzean.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1- Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora.

2- Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuntzako kontsulta ez-presentzialen portzentajea, hilabetez xehakaturia, 2021eko urritik 2022ko martxora, osasun eskualde oinarrizko bakoitzean.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuko Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Plana sortu zen Nafarroako

roako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasuneko zuzendari nagusiari egindako enkargu gisa, Oinarrizko Osasun Laguntzako arazo premiazkoenak konpontzeko. Aipatu planaren lehen bertsioa 2021eko martxoan aurkeztu zen, eta ondotik iritsi ziren bertsioetan geroratu egin dira ekintza eta helburu berberak, helburuak epe labur, ertain eta luzeko ekintzatzat jotzen baitziren, hasierakoak 2021eko lehen seihilekorako.

Dagoeneko, Planaren bertsioetan bildutako epe guztiak bete gabe geratu dira.

Diario de Noticias egunkarian 2022ko martxoaren 4an argitaratutako elkarrizketa batean, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriak adierazi zuen martxoaren 11n bilera bat izanen zela oinarrizko osasun eskualdeetako zuzendariekin eta hori plana "abiatzeko pistola-tiroa" izanen zela.

Zeri deritzozue plana "abiatzeko pistola-tiro" hori?

Zer helburu duzue Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planari dagokionez eta zer epetan, legegintzaldia amaitu arte?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko osasun-etxe batzuetan telefonogune berriak paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Diario de Noticias egunkarian martxoaren 4an argitaratutako elkarrizketa batean, Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriak adierazi zuen zentro gehienetan aldatu direla telefonoguneak eta Iru-

ñeko zentroetan telefonogune adimentsuak jarri direla.

1- Zenbat telefonogune aldatu da osasun etxeetan edo kontsultategietan legegintzaldi honetan, zer zentro zehatzetan eta noiz?

2- Zenbat telefonogune adimentsu jarri dira Iruñeko osasun etxeetan legegintzaldi honetan, zer zentro zehatzetan eta noiz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Internet bidezko hitzordu-eskaera egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

SER Navarra irratian martxoaren 3an egindako elkarrizketa batean Iruñeko Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaile berriak adierazi zuen Internet bidezko hitzordu-eskaera ahalbidetuko zela. Internet bidezko hitzordu-eskaera, profil profesionalaren arabera, orain dela hamar urte baino gehiago ezarri zen Nafarroan. Pandemiarekin batera blokeatu egin zen eta irisgarritasunerako hesi bat izan da.

1- Noiz blokeatu zen hitzordua Internet bidez eskatzeko aukera Oinarrizko Osasun Laguntzan? Une horretan Internet bidezko hitzordu-eskaerarako modalitatearen bat mantendu al zen?

2- Noiz berreskuratu zen hitzordua Internet bidez eskatzeko aukera erizaintzarekin?

